

SINDIKATUEK SALATU EGIN DUTE GASTEIZKO GOBERNUAK LANPOSTUAK MURRIZTU NAHI DITUELA

Borondatezko erretiroen plana onartuko du gaur Jaurlaritzak

Administrazio orokorreko langileen erretiro boluntarioa aurreikusten duen egitasmoa aztertuko du gaur Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak. Atzo sindikatuak eta Jaurlaritzako Funtzio Publikoko arduradunak bildu ziren, baina ez zuten ezer hitzartu.

Felix Iriarte / Gasteiz

JAURLARITZAK gastu korronea murriztu nahi du, eta helburu hori lortzeko, besteak beste, Administrazio orokorreko langileen borondatezko erretiroa bultzatuko du. Gobernu Kontseiluak gaur onartuko du Juan Jose Ibarretxe Ogasun sailburuaren plana.

Aurten hirurogei urte edo gehiago bete dituztenak sartuko dira planean. Hirurogei urte dituztenek hiru urteko soldata gordina eta antzinakotasuna kobratuko dute eta bost urte gerroago Gizarte Segurantzaren erretiroa jasoko dute; hirurogeita bat urtekoek 2,4 urteko soldata; hirurogeita bi dituztenek 1,8 urtekoa; hirurogeita hirukoek 1,2 urteko soldata; eta hirurogeita lau urte beteko dituztenei 0,6 urteko soldata kobratzea eskainiko die Jaurlaritzak.

Erretiro aurreratua onartzeko, hala ere, Jaurlaritzaren oniritzia lortzea ezinbestekoa izango da. Ibarretxeren planaren arabera bi baldintza beharko dira: funtzionarioek onartzea, eta Jaurlaritzak baimentzea.

Egitasmo honetan 198 pertsona sar daitezke, horiek baitira gutxienez hirurogei urte izango dituztenak urte amaieran. Hezkuntzako, Osasunako edo Justiziako funtzionarioak egitasmotik at geratu dira, arlo bakoitzak bere plan partikularra izango duelako.

Sindikatuak planaren aurka daude. • Gobernu Kontseiluak plana onartu ondoren, urte



Urte amaierara arte, Jaurlaritzak funtzionarioekin negoziatu beharko du ea eskaintza onartzen duten.

ARTXIBOKOA

amaiera arteko epea izango du indarrean jartzeko, urte berrirako aurrekontuetan ez baita diru partidarik agertuko kenduko diren lanpostuetarako. Epe honetan Jaurlaritzak funtzionarioekin negoziatu beharko du ea eskaintza onartzen duten.

Sindikatuak, ordea, gaitzetsi egin dute Ibarretxeren egitasmoa. Jon Uriarte negoziazio kolektiborako arduraduna eta Luis Alba Funtzio Publikorako sailburuordea sindikatuen ordezkariekin bildu ziren atzo, baina ez zuten aurrera egiterik lortu.

Adolfo Muñoz ELAko ordezkariak Jaurlaritzako mintzakideen jarrera salatu zuen bileraren ondoren. «Jaurlaritzaren helburu bakarra langile kopurua murriztea da. Administrazioa, gainera, ez da gauza izan plan serio bat aurkezteko, eta egin duen bakarra neurri batzuk inprobisatzea izan da», adierazi zuen.

Sindikatuak negoziatu nahi ez izatea leporatu dio, halaber, ELAko ordezkariak: «Gobernuak tramitezko bilerara deitu gaitu. Bihar (gaur) plana onartu egingo du, baina sindikatuak negoziatu gabe».

CCOO eta LAB sindikatuen iritziak oso antzekoak ziren. CCOO sindikatuaren iritziak, planak erakusten du Gobernuak ez duela gestioa hobetu nahi, «langile kopurua murriztu baiduzk».

Erretiroa onartuko dutenen sarien izaera fiskala argitzea nahi luke CCOO. Halaber, neurriak hartu aurretik Jaurlaritzari eskatu dio plantilaren azterketa bat aurkezteko. CCOO, beste sindikatuak bezala, kexu da ez delako negoziatuziorik izan. X

laburrean

■ Funtzionarioen soldatak izoztearen kontra azaldu da Etxenike Gipuzkoako Ekonomia diputatua

«EUROPA aitzakia moduan erabiltzen ari dira beharrezkoak ez diren murrizketak egiteko». Hala uste du Guillermo Etxenikek, Gipuzkoako Ekonomia diputatua. Etxenikeren ustez, «uneotan» funtzionarioen soldatak bere horretan uztea ez da «beharrezkoa». Azkenean, «murrizketen ondorioz, Maastrichten egotea baino kanpo gelditzea hobe dela uste dute herritarrek», adierazi du Etxenikek. X

■ Petronorreko langileek eta zuzendaritzak negoziatzeari berrekin diote

HITZARMEN KOLEKTIBOAN sinatzeko negoziazioei berrekin diote Petronor konpainiako langileen ordezkariak eta zuzendaritzak, sei hilabeteetan egin diren lanuzteak bertan behera utzita. Orotara, 35 langunetan egin dute greba langileek azken urte erdian. Zuzendaritzak 200 langile kaleratzeko asmoa zuen eta langileak horren kontra agertu ziren hitzarmen kolektiboa izenpetzeko negoziazioak etenda. X

■ Euskadiko UGTko zuzendaritza berritzearen alde azaldu da Josu Frade

EUSKADIKO UGT-N gazteen partehartzea ahalbidetu behar dela eta zuzendaritza berritzea beharrezkoa dela iritzi dio Josu Frade EAEko UGTko idazkari nagusiak. «Aire berria sartzen utzi behar dugu elkarteetan. Izan ere, izen berberak urte gehiegi entzun dira sindikatuak. Niri ere gauza bera gertatzen zait. Ez dakit neure burua idazkari izaten jarraitzeko aurkeztuko dudan datorren biltzarrean», aurreratu du Fradek. X

■ Dirulaguntzatan eta Administrazioako gastutan murrizketa gehiago iragarri du Bonnek

ALEMANIAKO GOBERNUKO alderdiek uste dute zor publikoa kontrolatzeko ahalegin berezia egin behar dela, eta dirulaguntzatan eta Administrazioako gastutan murrizketa gehiago iragarri dituzte. Izan ere, azken egunotan Alemaniako Ekonomia ministroak aitortu egin du aurten defizit aurreikuspenak ez dituztela beteko. Heldu den urtera begira, aldiz, baikorrako daude Alemaniako arduradunak. X

Uztailera arte 4.230 istripu gertatu dira eraikuntzan

■ Nafarroan lau langiletatik batek istripuren bat izan du aurtengo lehen sei hilabeteetan


A. A. / Donostia

ERAIKUNTZA ALORREKO langileek gero eta istripu gehiago jasaten dituzte. Urtariletik uztailera arte Hego Euskal Herrian 4.250 ezbehar jazo dira. Horien artean, 107 istripu larriak izan dira. Aurreko urteko lehen seihilekoarekin alderatuta, probintziak Nafarroan eta Gipuzkoan istripu kopuruek behera egin dute eta Araban eta Bizkaian, berriz, gora.

Araban hazkunde nabarmena izan da. Probintzia horretan aurtengo lehen seihilekoan 454 istripu gertatu ziren, aurreko urteko epe berean baino 80 gehiago. Portzentaiatan adierazita, hazkundeak % 22koa izan da. Bizkaian eraikuntzan suertatutako ezberhar kopurua % 9 hazi

egin da, aurtengo lehen seihilekoan 1.734 istripu gertatu baitira, iazko lehen seihilabeteetan baino 151 gehiago. Gipuzkoan 920 ezbehar jazo dira, eta aurreko urteko lehen erdian, aldiz, 958. Gipuzkoan jaitsiera, beraz, % 4koa izan da.

Bestelako joera izan da Nafarroan eta ezbehar kopurua bere horretan gelditu da. «Hala ere, eraikuntzan diharduten langileak gutxiago dira orain duela urtebete baino. Dena dela, eraikuntzan aritzen diren lau langiletatik batek istripuren bat jasan du aurten. Harrigarria bada ere, hala da», adierazi du Nafarroako ELAko. Eraikuntza alorrean gaintzeko jardueretan baino istripu gehiago gertatzen dira, «batak bat langileek duten egoera egongaitzagatik. Nolanahiko bal-



dintzatan lan egitera ohituta daude eraikuntzan. Ondorioak istripuen datuetan isladatzen dira», sindikatuak bozeramaile batek azaldu duenez. Nafarroan

1.142 lan ezbehar gertatu dira eraikuntzan, eta horietatik 21 larriak izan dira, ekitaldiko lehen seihilekoari buruz ELA eman dituen datuen arabera. X